

azpeitianzer?

udal aldizkaria

191. zenbakia

INDUSTRIA LURRETATIK ABIATUTA, EKONOMIA SUSTATZEN





TELEFONO INTERESGARRIAK

Zentralita	943 15 72 00
Alkatetza	943 15 71 85
Idazkaritza	943 15 71 98
Kontuhartzailletza	943 15 71 89
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Komunikazioa	943 15 79 82
Kirolak	943 15 00 95
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Zapo Txoko	943 15 71 61
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Suhiltzaileak	112
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63
Euskara Patronatua	943 81 45 18
Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Lapatx Zabortegia	943 15 18 75



BOTIKA TXANDAK

ALBERDI

Jose de Artetxe 6 • Tel.: 943 81 59 74
Abenduak 9, 15, 24, 26 eta 27

ARANBURU

Plaza Nagusia - Goiko kalea 2,
Tel.: 943 81 13 50
Abenduak 11, 14, 19, 20, 21 eta 30

ARTETXE-BASTIDA

Urbitarate auzoa 3 • Tel.: 943 81 19 49
Abenduak 12, 13, 18, 25 eta 29

ARRIETA

Enparan 29 • Tel.: 943 81 12 74
Abenduak 8, 10, 17, 22 eta 28

JACOME

Garmendi 21 • Tel.: 943 08 02 58
Abenduak 16, 23 eta 31

ALE HONETAN ZER?

Sustapen ekonomikorako laguntzak	3
Merkataritza.....	6
Ostalaritza	7
Lur industrialak	8

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala.
Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Maketazioa eta testuak:
Bidera Zerbitzuak (Berria Taldea)

Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

**AZPEITITIK KANPO BIZI ARREN, ZURE ETXEAN
JASO DEZAKEZU AZPEITIAN ZER? ALDIZKARI
HAU POSTA BIDEZ. EGIN ESKARIA 943 15 71 85
(ALKATETZA) TELEFONOAN.**

AZPEITIA EZAGUTZEN



**INAXI ETA PATXI PERTSONAIEN BIDEZ,
AZPEITIKO HISTORIA EZAGUTZEKO BALIOKO
DIGUTEN HERRIKO DATU ESANGURATSUAK
IKASTEKO AUKERA IZANGO DUGU
AURRERANTZEAN TARTE HONETAN. EZAGUTU
AZPEITIA, BERE HISTORIA ETA ONDAREA!**



doren armarran otsoak irudikatzeko eskubidea. Azpeitiko hiribilduak Loiolako etxearen armarrria hartu zuen, leinu edo familia honek herrian izandako boterearen adierazle. Hiribildua sortu aurretik ere baziren orubeak, errebalak eta bizilekuak gaur Azpeitia den lekuan. Loiolatarrak eta Oinaztarrak agirietan agertzen dira 1180. urterako. Oinatz eta Loiola leinuek bat egin zuten ezkontza bidez; Beltran Yañez Loiolakoak eta bere emazte

Gainerako herrien antzera gure herriak ere badu armarrria. Armarrriak herrian izandako familia edo leinu garrantzitsu batekin lotzen du hiribildua, Loiolatarrekin. Hasiera batean Loiolako etxearen armarrrian agertzen zen lapikoa; Beotibarko guduan izandako parte hartzeagatik eman zitzaien ondorengo

SUSTAPEN EKONOMIKORAKO LAGUNTZAK



**HERRIKO EKONOMIA
SUSTATZEKO,
101 PROIEKTU
LAGUNDU DIRA DIRUZ**

Sustapen ekonomikorako aurreikusitako dirua ia bikoiztu egin du Udalak egoerak horrela eskatzen zuelako. Hala, 475.000€ko bideratu dira 2020an herriko 98 proiektu ekonomiko laguntzeko; tartean, 25 kontratazio.




Herriko ekonomia indartzeko helburuarekin 475.000€ko laguntza lerroa jarri zuen abian Udalak. Guztira, 101 proiektu lagundu dira diruz.

Pandemiaren hasierako itxialdi gogorraren ostean, maiatzean, Sustapen Ekonomikorako Plan Integrala aurkeztu zuen Udalak. Plan horrek pandemiari aurre egiteko testuinguru bat eta norabide bat markatzen du; udalaren laguntzak estrategia baten baitan kokatzea. Plan integral horrek 11 lan lerro zehazten ditu eta 1,7 miloi bideratu ziren horretara. Abenduan, plan hori %100ean exekutatzeko bidean da. Plan horren baitan daude sustapen ekonomikorako laguntzak, besteak beste.

Urtearen hasieran aurreikustako diru poltsa ia bikoiztu egin zuen pandemiari aurre egiteko Azpetiko Udalak. Hala, Ekonomia sustatzeko laguntzen deialdia uztaillaren hasieran jarri zuen abian, 475.000€ko funtsarekin. Krisi ekonomikoa eta egoera ekonomikoaren ziurgabetasuna aintzat hartuta egokitu zuen deialdia eta herritarrak kontratatzeke lerro berri bat jarri zuen: "Egoera ez ohiko batean, ez ohiko neurriak hartzea egokitu zaigu, Azpeitiaren eta azpeitiarren beharrei erantzuteko. Gaur, abian jarri genuen plan integrala ia bere osotasunean exekutatuta, tresna horren erabilgarritasuna eta baliabide publikoak herritarren eskura jartzeko eginiko apustua positiboki baloratzen dugu", adierazi du Nagore Alkorta alkateak.

Krisi ekonomiko eta soziosanitarioak ezjakintasun eta egoera ezegonkorra sortu du eta eragin zuzena du herritarren eta eragile sozialengan: "Udala da herritarrek eta eragileek jotzen duten lehen atea eta hasieratik beharrei erantzuteko baliabide materialak eta diru-laguntza lineak jarri ditugu abian.", zehaztu du. Bide horretan, sustapen ekonomikorako aurreikusitako 475.000 eurotik 420.000€ inguru banatuko dira proiektu ekonomiko desberdinetara.

Inor atzean ez uztea izan dela helburu errepikatu du behin eta berriro martxotik gaur arte, eta egoera honetan ere sektore desberdinei lagunduz krisiari aurre hartzea izan da helburua, "babes sare integral bat" osatuz.



101 PROIEKTURI BULTZADA

Sustapen ekonomikorako laguntzetara 102 proiektu aurkeztu dira; horietatik 101 lagundu dira diruz. 30 proiektu merkataritza eta lehen sektorerako bideratutakoak dira, beste 29 proiektu industria proiektu estrategikoak, 16 proiektu ekintzaile eta 26 kontratazioak.

Ekonomia sustatzeko laguntzak 2013. urtean jarri zituen abian Udalak, eta urtez urte ikus daiteke ibilbidean ematen ari den fruituak. Laguntza honen helburu nagusia da enpleguaren sorrera eta enpresen lehiakortasuna sustatuz sortu den krisi egoera gainditzeko eta eraldaketa ekonomiko eta soziala eraginez lehiakortasun eta garapen jasangarriko beste errealitate batera salto egitea. Laguntza horiek zehazterakoan hainbat azterketa eta datu izan ditu Udalak oinarria. Alde batetik, pixkanaka goraka doan langabezia tasa izan dute kontuan. Azaroko datuen arabera, Azpeitian %9koa da; tasa eskualdeko, Gipuzkoako eta EAEko baxuagoa: "Datuen horien atzean izen abizen duna herritarrak daude, eta langabeziari aurre egitea ezinbestekoa da guretzat".

LAU LERRO, BEHARREI ERANTZUTEKO

Lau lan lerro lagundu dira diruz; merkataritza eta lehen sektorean enplegua sustatzea, proiektu industrial estrategiko eta berritzailea, ekintzailetasuna eta lan kontratazioak.

Lehenengo diru-laguntza lerroa lehen sektoreko eta merkataritzako jarduerak bultzatzeko proiektuetara bideratuko da. Guztira, 175.000 euroko aurrekontua zuen; horietatik 44.700€ inbertitu dira aurkeztutako 30 proiektu laguntzeko. Lehiakortasuna hobetzeko eta sektore horietako langileen kontratazioak sustatzeko eman dira laguntzak. Aurtun, koronabirusa medio prebentzio neurriak hartzeko eginiko inbertsioak ere lagundu dira diruz.

Industria proiektu estrategikoak laguntzeko 238.450€ dira. Industria arloko proiektu estrategikoak eta berritzaileak sustatzen dituzten proiektuak nahiz enplegua sortzeko eta mantentzeko inbertsioak finantzatu ditu udalak. Lerro horren ideia nagusia herriko enpresa txiki eta ertainen proiektuak diruz laguntzea da. Digitalizazioaren, industria

jarduera berrien, emakumeak industrian integratzearen eta energia berriztagarrien sustapenaren inguruko proiektuen lagundu dira diruz. Azpeitiko industriaren dibertsifikazio bultzatzeko 16 proiektu lagundu dira diruz; inbertsiotarako 10 proiektu lagundu dira, autokontsumo elektrikorako eta energia berriztagarrien erabilera sustatzeko proiektu bat lagundu da; beste enpresa batek berdintasun plana garatzeko laguntza jaso du eta berdintasuna aintzat hartuta instalazioak egokitzeko bi proiektu ere lagundu dira. .

Ekintzailetasuna sustatzeko ekintzetara 65.000 euroko diru partida aurreikusi zuen udalak eta 60.000€ bideratu ditu 15 proiektu ezberdinetara.

25 LAN KONTRATU DIRUZ LAGUNDU DIRA

Martxotik gure artean dagoen egoera ezegonkorra, errealitatea eta datuak ezagututa, Azpeitiko Udalak laugarren lerro bat abian jartzeko apustua egin zuen eta Plan integralan jaso zuen. Hala, Azpeitiko enpresek herritarrak kontratatzea diruz lagundu; guztira, orain artean 25 lan kontratazio lagundu ditu diruz, udalak.

Bide horretan, herriko enpresen lanpostuak mantentzea eta lanpostuen kalitatea hobetzea da helburua. Laguntza lerro berri honen helburua egoera honetan kontratazioak bultzatzea da. Aldi baterako eta kontratu mugagabeak lagundu dira diruz. Laguntza gehigarri bat jaso dute, gainera, industrian emakumeak kontratatatu dituzten enpresek.

Laguntza hau bi epealditan eskatzeko aukera jarri zuen udalak eta abenduaren 31ra arte eskatu daiteke.



5.000 EROSKETA BONO MERKATARITZA TXIKIAREN SUSTAPENERAKO

“ERABAKI
DEZAGUN GUZTIOK
GURE KONTSUMO
OHITURAK BERRAZTERTU
ETA HERRIAN
INBERTITZEA”

Bertan Merkatarik Elkartea eta Azpeitiko Udalak bertako merkataritza sustatzeko duten elkarlan eta konpromisoaren baitan, merkataritzaren sustapen ekonomikorako tresna diren erosketak bono kanpaina desberdinak jarri dituzte martxan, 250.000€ko kontsumo bolumena sortuz.

Bertan Merkatarik Elkartea eta Azpeitiko Udalak 5.000 erosketak bono jarri dituzte salgai ekainetik abendura bitartean, herriko merkataritza txikia sustatzeko helburuarekin.

Pandemia kalte ekonomiko nabarmenak eragiten ari da eta, horren aurrean, sustapen ekonomikorako tresna izan dira bono kanpainak. Nagore Alkorta Alkatearen hitzetan, “Garai ekonomiko zailak bizi ditugu. Eta udalak, merkatarik zein herri-

tarrak elkarlanean bertako merkataritza eta ekonomia sustatzeko konpromiso sendoa adierazi behar dugu”, adierazi du. Bide horretan, herritarrei bertako merkataritzaren aldeko apustua egiteko eskatu die: “Orain inoiz baino gehiago dagokigu herriko merkataritza eta ostalaritza babestea. Herrian egin ditzagun erosketak. Erabaki dezagun guztiok gure kontsumo ohiturak berraztertzea eta herrian inbertitzea”, gaineratu du.

Karmele Zabaleta Bertanen lehen-dakariak ere ildo beretik hitz egin du. “Pandemiak agerian utzi du bertakotasunaren garrantzia. Gertuko denden beharra ikusi da eta aurrera begira etxe inguruan dendak izan ditzagun, beharrezkoa da herrian erostea. Zentzu horretan, bonoek pizgarria suposatzen dute”.

Udaberriko itxialdiaren ostean, dendak irekitzeko aukera izan bezain laster jarri ziren lehen 1.500 bonoak salgai. Ordu gutxiren buruan bonoak gastatu zirela ikusita beste 1.500 jarri zituzten martxan. Abendua hastearrekin bat, Gabonetako kanpainaren atarian, beste 2.000 bono jarri zituzten salgai. 5.000 bono horien bidez, 250.000€ko kontsumo bolumena sartu da bertako merkataritzan.



“OSTALARIEKIN
BILERA EGIN OSTEAN, EGUN
GUTXIRA, EMAN GENUEN
EKONOMIA BATZORDERA PROPOSAMENA
ETA TRAMITAZIO GUZTIAK
EGINDA, ABENDUAN
EGIN DUGU DEIALDIA”

OSTALARITZA BABESTEKO, LAGUNTZA GEHIGARRIA

Azaroaren 6an, osasun larrialdi egoera ezarri zenetik bigarren aldiz ostalaritza zerbitzua ixteko agindua eman zuen Eusko Jaurlaritzak. Azpeitiko Udalak, egoeraren larritasuna ikusirik, herriko taberna, jatetxe eta kafetegietako arduradunekin bilera egin zuen azaroaren 11n.

Beste hainbat sektore bezala, egoera zailan aurkitzen da ostalaritza. Azken hilabeteotan aste luzez itxita egon behar izan dute osasun alarmak egoera dela eta. Egoera horren jakitun da udala, eta horregatik, martxoan bezala diru laguntza lerro osagarri bat jarri zuen abenduan abian. 63 eskaera jaso ditu. “Herritarren arazoak, udalarenak ere badira, eta bide horretan, babesa hitzez adierazteaz gain, egoera horri aurre egiteko baliabide publikoak jartzeko konpromisoa hartu genuen eta dirulaguntza berri bat bideratu dugu horretarako” adierazi du Nagore Alkorta alkatea. Abenduaren 1ean, ostalaritzari zuzendutako laguntza linea berri bat

jarri zuen abian udalak; 70.000€ bideratuko ditu itxita dauden taberna eta jatetxeak laguntzeko.

Ez ohiko diru-laguntza horren bidez, nahita-nahiez aplikatu beharreko salbuespeneko prebentzio neurriak sortarazitako egoera zailari aurre egiteko baliabideak eskaini nahi ditu Udalak. Herritarrengandik gertuen dagoen instituzioa izanik, gainontzeko administrazioek eremu honetan epe labur nahiz ertainean har ditzaketen bestelako neurrien osagarri izango den laguntza jarri da abian, zehazki. “Ostalariekin bilera egin ostean, egun gutxira, eman genuen ekonomia batzordera proposamena

eta tramitazio guztiak eginda, abenduan egin dugu deialdia. Laguntzak lehenbailehen iristea nahi dugu kalte-tuena, eta tramitazio azkarra izateko prestatu dugu”, zehaztu du.

Laguntza berri hori eskuratzeko baldintzak betetzen dituztenek 600€ko kuota fijo bat jasoko dute. Horretaz gain, 400€ arteko beste laguntza gehigarri bat jasotzeko aukera izango dute establezimenduaren alokairu gastuengatik edo ondasunen eskuraketa edo egokitzea finantzatzeko duen maileguen interesak eta amortizazio-gastuengatik.

MARTXOAN, 267.500€ BIDERATU ZIREN

Martxoan, herriko merkataritza eta ostalaritza itxi zen unean, ez ohiko egoera zela ikusita, ez ohiko neurriak hartzeko bidea hartu zuen Azpeitiko Udalak: “Bi aukera genituen, itxitea goragoko erakundeek bideratu zitezkeen neurriak ikusi arte, edo ekitea. Hasieratik, erantzunean azkartasuna behar zela, eta baliabideak lehenbailehen herritarren eskura jartzeak zuen garrantziaz azkar ekitea erabaki genuen”. Eta, martxoan bertan itxiarazitako establezimenduei bideratutako laguntzak jarri zituen abian. Laguntza horren bidez, 267.500€ bideratu ziren herriko merkataritza eta ostalaritza zerbitzuak laguntzeko. Hala, bi laguntzen bidez, 2.000€ arte jasotzeko aukera izan dute herriko ostalariek.

LUR INDUSTRIALAK

UDALAREN HELBURUA
ETORKIZUNeko BELAUNALDIEK
ERE HERRIAN BIZI ETA LAN
EGITEKO AUKERA IZATEA DA

LUR INDUSTRIALEN GARAPENA HELBURU

Ekonomia, lana edo langabezia dira azpeitiarren kezka nagusiak. Azpeitiko Udalaren ardatz da ekonomia azken urteotan, eta bizi dugun egoera ez ohikoan, gizarte beharrei erantzutearekin batera, ekonomia da lanerako ardatz nagusienetarikoa.

2019ko ekainean agintaldi berriari ekitearekin bat abiatu zuen Udalak etorkizuneko korapiloak askatzeko bidea: “Hasiera-hasieratik esan dugu egunerokoa kudeatzeko gaudela; baina etorkizuneko Azpeitia birpentsatzeko eta gaurtik eraikitzen hasteko hainbat gai edo

arazori heltzeko asmoa genuela”, adierazi du Nagore Alkorta alkateak. Arlo edo gai horietako bat lur industrialen, eta batez ere, Landetako industriagunearen inguruko hausnarketa da. “Lur industrialen baitan hiru lan lerro ditugu zehaztuta: jabeekin lantzen ari garen Corrugadoseko

eremuaren garapena, Larringo lur publiko industrialen garapenerako hitzarmena eta Landeta eraberritzeko azterketa eta plana. Epe luzerako proiektuen hasiera puntuan gaude, baina etorkizuneko Azpeitia hori eraikitzeko ezinbestekoa da gaurtik lantzen hastea gai konplexu hauek”, azpimarratu du.

Azpeitiarrrek bertan lan eta bizitzeko aukerak sortzea dute helburu: “Herrian bertakoek lan egiteko aukera duinak izatea eta bertan bizitzeko hautua egitea nahi dugu. Industria da herriko motorra; eta industrian lanpostu duinak sortzea da gure politiken helburua”, gaineratu du.

Industria berreskuratu eta berraktibatzeke neurriak hartu eta baliabideak jartzeko pauso garrantzitsuak ematen hasia da Udala,

LANDETA, LARRIN ETA CORRUGADOS ABIAPUNTU

Azken krisi ekonomikoak hainbat enpresa ixtea ekarri zuen herrian, eta horrek eragin zuzena izan du industria eremuen degradazioan. Itxi ziren enpresetako bat Corrugados Azpeitia izan zen: “Eremu horri ere aterabide egokia eman beharra dago herriaren garapen orekatu baterako. Horregatik, gaur egun go jabe den Grupo Industrial CL

LAN AUKERAK
ETA LANPOSTU DUINAK
SORTZEKO EREMU
INDUSTRIALAREN GARAPENA
EZINBESTEKOA DA

eta Leal familiarekin harremanetan gaude. Enpresa irekitzeko asmorik ez duela adierazi digute eta eremu horren garapen posibleak aztertzen ari gara elkarlanean. Eremu horrek aterabide orekatua izan dezan ezinbestekoa dugu elkarlean aritzea”, jarraitu du.

Ekonomia eta lur industrialen garapenaz hitz egitean, udalaz gaindiko eskumenez eta inbertsio handiez hitz egiten da: “Lur industrialak eskuratu eta garatzeko inbertsio publikoa ezinbestekoa da eta horregatik izan gara azken hilabete luzeetan Sprilur-rekin harremanetan, horregatik baliolan jarri nahi dut, azaroaren 5ean Larringo eremua garatzeko sinatutako hitzarmena ere”, azpimarratu du.

Herriko eremu industrialak zaharkituak daudela esatean gai horri “heldu beharra” dagoelako dela azpimarratu du: Bide horretan, ibilbide baten oinarriak jarri eta norabide bat zehaztu du Udalak.



LANDETA ERABERRITZEKO AZTERKETA, ABIAN

Lur industrialak egokitzearen beharra nabaria da herrian. Hainbat gune industrial zaharkituak daude, eta industria beharrei erantzun eta enpresak erakartzeko ezinbestekoa da gaur egungo beharrei erantzungo dieten lur industrialak garatuta izatea.

Herriko industriaguneei errepasoa emanez gero, nabaria da Landetako industriagunearen zahartze eta degradazioa. Beraz, ezinbestekoa da Landetako eremuaren eraberriari heltzea udalarentzat: “Industria lurrez hitz egiten dugunean, dugunetik abiatuta etorkizuneko erronkak zehaztuak ditugu. Lehentasunezkoa da guretzat Landetako eraberritzea-ri heltzea”, adierazi du Josu Labaka Zerbitzu Orokorrerako zinegotziak.

Udalaren helburua etorkizuneko belaunaldiak ere herrian bizi eta lan egiteko aukera izatea da. Lan aukerak eta lanpostu duinak sortzeko eremu industrialaren garapena ezinbestekoa da. “Industria garapenerako azpiegitura falta nabaria da gaur egun. Eta horren adibide nagusia Landeta da”, zehaztu du Labakak. Horregatik, Landetako ordenazioa eta etorkizuneko zein beharri erantzuteko garapena behar duen zehaztuko duen alternatiben azterketa abiatu du Udalak.

Eremu zabala hartzen du Landetak, 50 hektarea inguru, guztira. Udalak abian jarri duen azterketak 16 hektareako azalera duen eremua hartuko du. Labakaren hitzetan “egoera-

**EGOERARIK OKERRENEAN
DAGOEN EREMUA DA
ABIAPUNTUA: ATXUBIAGAKO
BIRIBILGUNETIK AMUKO
ZUBI ONDKO BIRIBILGUNERA
ARTEKOA**

rik okerrenean” dagoen eremua da abiapuntua: Atxubiagako biribilgunetik Amuko Zubi ondoko biribilgunera artekoa. Eremu horren azterketa egin eta ordenazio proposamen berri bat garatzea da azterlan horren



helburua. “Eremu hori Landetan biltzen diren interes desberdinen isla da: etxebizitzak, taberna eta jate-txeak, aktibitate industrial, aktibitate komertziala, hustutako eta utzitako pabiloiak, kale estu eta ondo antolatu gabeak... aurkitzen baitira. Denetik eta modu desordenatu batean biltzen da gaur egun, eta inguru degradatua bihurtu da”, azaldu du. Tartean, ibaia ere badago, eta ibaia estutu egiten da inguru horretan. Uholde arriskua dela eta, Urak agentziarekin, beste herriko hainbat gunerekin bezala, lanketa berezia egiten ari direla azaldu du. Eremu horrek etorkizuneko beharrei herri ikuspegiarekin erantzuteko ba-

**LANDEKAKO ORDENAZIOA
ETA ETORKIZUNeko ZEIN
BEHARRI ERANTZUTEKO GARAPENA
BEHAR DUEN ZEHAZTUKO DUEN
ALTERNATIBEN AZTERKETA
ABIATU DU UDALAK**

liabide edo tresnarik ez du eskaintzen indarrean dagoen Plan Orokorrak, dauden pabiloiak kontsolidatutzat ematen dituelako. “Aurrera begirako

bisio batekin etorkizuna marrazteko aukerarik edo zirrikiturik ez du uzten. Horregatik, datozen sei-zortzi hilabeteetan eremu horren inguruko hausnarketa egingo da eta proposamen bat landuko da industria lurretan adituak diren teknikoekin”.

Behin proposamen teknikoa edo alternatiba ezberdinak jasota, herritarren iritzia eta ekarpenak jasotzeko prozesua jarriko da abian. Herriarren ekarpenekin osatutako dokumentua Plan Orokorrean sartzeko prozedura egokiena zein den zehaztuko da ostean, eta osatutako dokumentua arau bihurtzeko egin beharreko tramitazioa egingo da.



LARRINGO LUR INDUSTRIALAK; BEHAR BERRIEI EGOKITUTAKO INDUSTRIAGUNEA

Etorkizuneko industria beharrei erantzuteko lur industrialak garatzeko hitzarmena sinatu dute Azpeitiko Udalak eta Sprilurrek; hala, inbertsio publiko bidez herriko industria sendotzeko eta berria erakartzeko baliabideak sortuko dira.

Industria lurren garapen eta berreskuratzearen baitan, pauso garantzitsua izan da, Sprilur sozietate publikoak eta Azpeitiko Udalak Larringo lur industrialen garapena

egiteko elkarlanerako hitzarmena sinatzea.

Sinatutako hitzarmenaren baitan, Larringo industria lurak gaur egungo industria eredu berriaren beharrei erantzuna emateko prestatuko dira. Orain artean, Azpeitiko Udalak eta Sprilurrek Larringo industriaguneko azalera eta lurra egokitzeko beharra aztertu dute, inguruko ekonomia indartuko duen enpresa-sustapeneko industria-eremua gauzateko. Horre-

**SPRILURREK ETA AZPEITIKO
UDALAK KONPROMISOA HARTU
DUTE BEHAR DEN IDAZKETA ETA
TRAMITAZIO ADMINISTRATIBOA
AHALIK ETA AZKARREN EGITEKO**

tarako, industria berriaren beharrei eta eskaera potentzialari erantzuten dieten alternatibak aztertu dira.

Akordio horren baitan, Azpeitiko Udalak Sprilur enpresari eskatzen dio Larringo industria lurak egokitzeko. Sprilurrek, berriz, industria-azpiegituren kudeaketan eta sustapenean duen esperientzia aurkeztu du, Azpeitian sustapen berri hori gauzatzeko. Horretarako, bi aldeek lehentasuna emango diete egin beharreko azterlan eta lanei, eta poligonoa urbanizatzeko aurreikusitako tramitazioak ahalik eta azkarren egiteko konpromisoa hartu dute.

LARRINGO XEHETASUNAK

Epe luzeko lanketa eskatzen du hitzarmenaren garapenak. Hala ere, Sprilurrek eta Azpeitiko Udalak konpromisoa hartu dute behar den idazketa eta tramitazio administrazioa ahalik eta azkarren egiteko. Sprilurrek hirigintzako planeamendu eta kudeaketari buruzko dokumentazio guztia prestatu eta tramitatuko du, Udalean onets dadin. Honek, halaber, jarduketa programa eta behin betiko urbanizazio proiektua tramitatu eta onartzeko bidea emango du, urbanizazio obrak hasiteko.

**LUR INDUSTRIALAK EGOKITU
ETA ESKURTZEA ESTRATEGIKOA
DA AZPEITIARENZAT ETA
ESKUALDEARENZAT**

Larrin poligonoaren jarduketa eremua 210.210 m²-ko azalera baten gainean dago, eta hasierako bideragarritasunaren azterlanak 4 parzela handi urbanizatzeko proiektua aurreikusten du, 15.072 m²-tik 49.800 m²-ra bitarteko azaleretatik ateratzen direnak. Hau da, guztira 107.409 m² industriarako lur zatia. Oinplanoko gehieneko okupazioaren azalera 64.445 m²koa izango litzateke eta solairuarterako aprobetxamendua %25ekoa, hau da, 16.111 m²-koa. 20 milioi euro ingu-

ruko inbertsioa izango dela aurreikusia dute.

Tokiko garapen ekonomikoarekin eta lurralde-ikuspegiarekin bat datozen helburuak lortzeko lankidetzaren eta konpromiso publikoaren adibidea da Larrin. Gainera, industria berriaren benetako beharrei erantzuteko enpresa-inguruneak zabalitzen, garatzen eta modernizatzen lagunduko du.

AZPEITARENZAT PAUSO GARRANTZITSUA

Lur industrialak egokitu eta eskurtzea estrategikoa da Azpeitiarentzat eta eskualdearentzat; bai bertako enpresek behar duten garapenerako azpiegiturak eskaintzeko, baita aktibitate ekonomikoa erakartzeko sare industriala berreskuratu eta lanpostu duinak sortzeko ere.

Azken urteotan asko aldatu dira industria beharrei eta behar berri horiei erantzuteko ezinbestekoa da azpiegiturak egokitzea: "Hainbat industria eremu zaharkituak gelditu zaizkigu, Landetakoa adibidez. Eta industria berria erakartzeko moduko azpiegiturak eraikitzearekin batera, zaharkituak gelditu diren eremuak biziberritzeko giltza ere izan nahi du Larringo industria eremuak", adierazi du Nagore Alkorta alkatea.

Erakunde publiko ezberdinen arteko elkarlana ere balioan jarri du: "Bestelako elkarlanerako aukerei ateak itxi gabe, ezinbestekoa da erakunde publikoak urrats bat aurrera eman eta inbertsio publikoa handitzea. Eta uste dut hitzarmen honek bi egiteko horiei bide ematen

**AZKEN URTEOTAN ASKO
ALDATU DIRA INDUSTRIA
BEHARRAK ETA BEHAR BERRI HORIEI
ERANTZUTEKO EZINBESTEKOA DA
AZPIEGITURAK EGOKITZEA**

diela; bai erakunde arteko elkarlana, baita erakunde publikoen elkarlana dagokionari ere".

Arantxa Tapia Sailburuak duela urtebete baino gutxiago elkartu zirela gai honen inguruan hitz egiteko lehen aldiz ekarri zuen gogorra hitzarmenaren sinaduran: "Hitz egiten hasi ginen eta poztekoa da gaur hemen hitzarmena sinatzen egotea". Eusko Jaurlaritzaren lehentasunetakoa langabezia tasa murriztea eta XXI. Mendeko industria sortzea dela azpimarratu zuen. Bide horretan, industria beharrei erantzuteko azpiegitura publikoak eskaintzearen beharra aipatu zuen. "Larringo industriaguneak herriko eta eskualdeko behar bereziei erantzuteko balio behar du. Azpiegitura faltak ezin du aitzakia izan bertako industriaren hazkunderako edo berriak erakartzeko", gaineratu zuen.

Horrelako proiektuen tramitazio faseak luzeak izan ohi dira, baina bi erakundeek egin beharreko azterketa eta tramitazio guztiak ahalik eta azkarren egiteko konpromisoa adierazi dute, beti ere guztiak ongi egingo direla bermatuta.



CORRUGADOSEKO LURRENTZAT IRTENBIDE EGOKIENAREN BILA

2014an urte gogorren ostean itxi zen Corrugados Azpeitia enpresa. Ordutik gorabehera ugari eta jabe desberdinak izan ditu, baina ezer gutxi egin da jabegoan. Orain, Azpeitiko Udala eta Leal familiaren Grupo Industrial CL, Corrugados Azpeitiaren gaur egungo jabea, elkarlanean ari dira enpresa horren lursail eta instalazioei irtenbide bideragarri eta egokiena eman asmoz.

Lur eremu zabala okupatzen du enpresaren azpiegiturak, eta herriko erdigunetik gertu dago siderurgia-ekoizpeneko lantegi historikoa.

Altzairutegia itxita dago 2014. urtetik eta berriro irekitzea ez da bideragarria enpresaren arabera, oraindik ere altzairuaren gehiegizko gaitasuna jasaten ari da merkatua eta zaila da nazioarteko merkatu berrietara sartzea, besteak beste, Covid-19ak eraginda-

**ALTZAIRUTEGIA ITXITA
DAGO 2014. URTETIK ETA
BERRIRO IREKITZEA EZ DA
BIDERAGARRIA ENPRESAREN
ARABERA**

ko pandemiagatik edo muga-zerengatik. Hori dela eta, enpresaren jabea eta Azpeitiko Udala harremanetan daude lur eremu horri aterabide egokiena aurkitzeko asmoz.

Leal familiak Corrugados Lasao lantegian ekoizten jarraitzeko borondatea mantentzen dela jakinarazi dio. Udalari.

LAN BILA ZABILTZA?

1 ENPLEGU ZENTROA

Laguntza eta kudeaketa:

- Eskualdeko lan eskaintzen informazioa
- Lan bilaketa aktiboa
- Lan eskaintzetan izen-ematea
- Lan bilaketa aktiboa sustatzeko IKTen erabilpenean aholkularitza



Enplegu Zentroak ondorengo zerbitzuak eskaintzen dizkie pertsona erabiltzaileei:

- Lan eskaintzak topatzeko ordenagailuak
- Eskualdeko lan eskaintzak eta hezkuntza zerbitzuak biltzen dituen iragarpen-taula
- Lanbideko lan eskaintzak

2 ORIENTAZIO ZERBITZUA

Aholkularitza pertsonalizatua:

- Pertsona bakoitzaren beharretara egokituriko aholkularitza pertsonalizatua euren enplegarritasuna eta heziketa eskaintza hobetzeko



Gainera laguntza pertsonalizatua eskaintzen da ondorengo gaietan:

- Kurrikuluma eta aurkezpen gutunaren lanketa
- Formakuntza beharren analisia
- Lan bilaketa aktiboan laguntza (norberaren hautagaitza, bilaketa kanalak...)
- Lan merkatuari buruzko informazio eguneratua



Lekua eta ordutegia

Enplegu eta orientazio Zentroa Azpeitian:

Sindikatu zaharra • Enparan kalea 1-3 • Tel.: 943 02 60 69

Astelehena	ENPLEGU ZENTROA	8:30-14:00 eta 15:00-16:30
Asteartea	ORIENTAZIO ZERBITZUA	9:00-14:00
Asteazkena	ENPLEGU ZENTROA	8:30-14:00 eta 15:00-16:30
Osteguna	ORIENTAZIO ZERBITZUA	9:00-14:00
Ostirala	ORIENTAZIO ZERBITZUA ENPLEGU ZENTROA	9:00-14:00 8:30-15:00